



Lehen Hezkuntza

2. Moduluaren gida: ESKOLA ETA *CURRICULUMA*

DIZIPLINARTEKO LANA (DAL) EGITEKO GIDA

2020-2021

AURKIBIDEA

1. DALaren aurkezpena. Arautegia	3
2. Lanaren garapena.....	7
3. Ebaluazioa	10
4. Eranskinak	12

1. DALaren aurkezpena. Arautegia

1.1. Aurkezpena

Bigarren modulu hau Lehen Hezkuntzako zenbait curriculum arlo jorratzen hasten da, zehazki: ingurunearen ezagutzaren arloa eta matematikaren arloa. Horrez gain, gaitasun soziala eta herritar gaitasuna lantzen dira. Horregatik, kontsumoaren gaia lantzea erabaki dugu, gaur egungo gizartean garrantzi handia duen elementua baita.

Kontsumoaren munduko egoerak egungo kontsumo ereduak ikuspegi ekonomiko, etiko, emozional, ekologiko, kultural eta instituzional berrietatik begiratzera bultzatzen ditu sektore guztiak (gobernuak, instituzioak - horien artean hezkuntza arlokoak-, ekoizleak, kontsumitzaileak, erakundeak, eta abar). Izan ere, planeta globalizatu honetan, munduko edozein lekutan gertatzen dena berehala eta zuzenean jakiten eta ikusten dugu.

Egungo kontsumitzailea globala da, masen hedabideen botereak sorrarazitako antzeko nahiez osatutako merkatu komun batean bizi da: dena sal dakiokero erosteko irrikatsu dagoen herritarrari (ikusleari): produktuak, zerbitzuak, hauteskunde kanpainak, gizarte onurak, eta baita justifikatu ezin diren ekitaldietako parte-hartzea ere. Zailtasuna gauza erabilgarriak alferrikakoetatik, egiazkoak gezurrezkoetatik, beharrezkoak ez beharrezkoetatik eta askatasuna alienaziotik bereiztean datza.

Kontsumitzea ez da ondasunak eta zerbitzuak gure beharrak asetzeko erabiltzea bakarrik; baita existitzen den zerbait suntsitzea edo desagerraraztea ere.

Krisi ekonomikoan murgilduta gauden une honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da kontsumoari bere horretan balioa eman dakiokeroen eta zerbaitetarako balio izango duen aztertzea, kontuan hartuta kontsumo mota hori ez dela iraunkorra eta ez digula hobeto bizitzen edo zoriontsuago izaten laguntzen.

Beraz, funtsezkoa da heziketa kontsumo kritikoan eta burutsuan oinarritzea, aukeratzen eta exijitzen jakiteko eta, bide batez, askatasunerako eta etorkizunerako herritarrak prestatzeko.

1.2. Testuingurua

2. modulu hau hasten duten ikasleek Lehen Hezkuntzako Graduko lehen urteko lehen lauhilekoa eginda izaten dute, beraz:

- Lehen Hezkuntzako irakasle batek bete behar dituen zereginak ezagutzen dituzte.
- Lehen Hezkuntzako ikasleen garapen psikologikoa ezagutzen dute, baita etapako ziklo bakoitzean ezagutza berenganatzeko modu egokiena ere.
- Badakite Lehen Hezkuntzako eskola egungo hezkuntza sistema osoaren testuinguruan kokatzen.
- Ikastetxeetan eta bestelako hezkuntza eremuetan sortzen diren egoera problematikoak identifikatzen eta aztertzen dituzte, eta erabakiak

hartzen eta arrazoitutako proposamen etikoak egiten dituzte, arazoak konpontzeko eta irakasle lana hobetzeko.

- Informazioaren azterketa kritikoa egiteko prestatuta daude.
- Taldean lan egin dute lehen lauhilekoan, eta taldeko ikasketarako eta ikasketa kooperatiborako ohitura eta ahalmena dute.
- Euskaraz/gaztelaniaz ondo moldatzen dira, eta hizkuntza ekoizpen eta ulermen egokia dute.

2. modulua (**Eskola eta Curriculum**) Lehen Hezkuntzako Graduko 1. mailan egiten da, bigarren lauhilekoan.

Diziplina Arteko Lanak (DAL) guztira 5 kreditu barne hartzen ditu; kreditu horiek DALa osatzen duten irakasgai bakoitzeko kreditu bati dagozkie:

	ECTS kredituak		ECTS kredituak
Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I	5	Moduluko Diziplina Arteko Lana (DAL)	5
Gizarte Zientziak eta beren Didaktika I	5		
Matematika eta bere Didaktika I	5		
Didaktika Orokorra	5		
Hezkuntzaren Psikologia	5		

Hau da DALean landu beharreko gaia: *“Lehen Hezkuntzako irakasleek kontsumo egoeren aurrean duten zereginá”*. DAL honetan Arazoetan Oinarritutako Irakaskuntza (AOI) metodologia erabiliko dugu. Lauhileko honetan, arazoa aztertzeaz gain, hezkuntzako esku-hartze bat diseinatzea proposatuko dugu, landu beharreko gaia kontuan hartuta.

1.3. Helburuak eta gaitasunak

Honako helburu hauek ditugu:

H1.- Kontsumo ekintza oro hainbat faktoreren menpe dagoen (moda, publizitatea, ontzia/paketea, gizarte ohiturak, taldeko identitatea, gizarte integrazioa, eta abar) eta hainbat ondorio dakartzan (ingurumenari, osasunari, ekonomiari, eta abarri dagozkienak) erabaki gisa hartzea, modulua osatzen duten gaien ezagutzak integratuz eta erlazionatuz.

H2.- Kontsumo jarrera kritikoa, arduratsuak, iraunkorrak eta osasungarriak sustatzea.

H3.- Kontsumo arduratsurako jarrerei eta balioei bide emango dieten kontsumoaren arloko irakaskuntza eta ikasketa proposamenak diseinatzea.

H4.- Graduko zeharkako gaitasunak aplikatzea, besteak beste: talde lana,

ahozko eta idatzizko komunikazioa, informazio bilketa, eta informazioaren irakurketa eta azterketa kritikoa.

Honako irakaskuntzarako emaitzak garatu nahi ditugu modulu honetan:

G1.- Hainbat gizarte egoera identifikatzea eta aztertzea, egoera horietan kontsumoan oinarritutako jarrera etikoak agerian utziz, baina beste hainbat alderdi ere kontuan edukiz: ingurumenaren narriadura, krisi ekonomikoa, gizarteko desorekak, hedabideen eta teknologia berrien ondorioak, genero desberdintasuna, osasunaren aurkako ohiturak eta modak, pertsonen arteko harremanak, eta abar (Z1, Z3bis, Z11).

G2.- Ikasgelan kontsumoarekin zerikusia duten gertakizunen analisi kritikoa integratzeko estrategiak diseinatzea/erabiltzea, esperientzia eta iritzi trukea erabilia norberaren balioak argitzeko eta kontsumo eredu arduratsuagoak eta iraunkorrako osatzen lagunduko duten jarrera pertsonalak hartzeko tresna gisa (Z2, Z7bis, Z13).

G3.- Gradu zeharkako gaitasunen lorpen maila etengabe garatzea eta hobetzea: talde lana, parte-hartzea, erantzukizuna, sormena, adierazpena, ahozko eta idatzizko komunikazioa, informazio bilaketa, eta informazioaren irakurketa eta azterketa kritikoa (Z3bis, Z10bis, Z13).

Parentesi artean gaitasun horiekin batera garatu beharreko Lehen Hezkuntzako Gradu zeharkako gaitasuna agertzen da. Zeharkako gaitasunak jarraian agertzen den taulan daude zehaztuta (1. eranskina).

DALak ez die aparteko lanik eman behar ikasleei, moduluko irakasgaien parte izango baita. Bertan, mailako gaitasunak eta titulazioko zeharkako gaitasunak landu behar dira (1. eranskina).

1.4. Antolakuntza eta arduraldia

DALa honela antolatuta egongo da:

DALa egiteko talde txikiak eratuko dira. Talde horiek ordena alfabetikoan osatuko ditugu, eta talde bakoitzak tutore bat izango du (lauhilekoko irakasgairen bateko irakaslea).

DALa egiteko ikasleek 125 orduz lan egin beharko dute (5 ECTS), 9 astetan banatuta. Ohiko eskola magistralak eta praktikoak (mintegiak ez) bi astez moztu egingo dira eta aste hauetan zehar tutoretza saioak, DALari bideratutako irakasgaien saioak eta autonomoki lan egiteko denbora egongo dira.

DALari eskainitako bi asteetan egindako tutoretzez gain, DAL talde bakoitzarekin beste bi tutoretza saio egingo ditugu, gutxienez.

DALa egiteaz salbuestea

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
2. Graduako ikasleek DALa egin beharko dute, baldin eta modulu bateko hiru irakasgaitan matrikulatuta badaude, gutxienez. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.
3. DALa egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10en gainean izango da, DALaren portzentajea aplikatu gabe.
4. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gairitu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DALa egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.

Aurreko kasuetako edozeinetan gomendatzen da moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin hitz egitea, egoeraren berri emateko.

Indarrean dagoen araua beteko da: Euskal Herriko Unibertsitateak 2016ko abenduaren 15an onartutako erabakia eta 2017ko martxoaren 13an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta.

Asistentzia derrigorrezkoa da.

Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman parte hartu ezin badu justifikatutako arrazoiengatik (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), DAL horrekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.

Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan **otsailaren 28a** baino lehen, eta honek behar dituzten informazioak emango dizkie, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia; lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da, hau da, **%16.67a** irakasgai bakoitzaren kalifikazioan.

DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila).

2. Lanaren garapena

2.1 DALa egiteko, honako pauso hauek proposatu ditugu:

- A) Hasierako egoera taldeka hautatzea eta **AOI** metodologia erabiliz lantzea (egoera irakurtzea eta aztertzea, galderak planteatzea, dakitenaren eta ezagutzen ez denaren zerrenda egitea, egitekoaren planifikazioa, informazioa lortzea ...) eta amaierako txostena idaztea Modulua irakasgai ezberdinen ekarpenak kontuan hartuta.
- B) **Irakaskuntza eta ikasketa proposamen bat diseinatzea.** Fase honetan, eskuratutako ezagutzak aplikatu behar dituzte ikasleek, Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutako hezkuntza esku-hartze bat diseinatzeke. Talde bakoitzak hautatuko du jarraitu beharreko eskema, baina guztiek honako puntu hauek barne hartu beharko dituzte:
- C.1: Proposamenaren asmoak: nori zuzenduta dagoen, garatu beharreko gaitasunak, lortu beharreko helburuak.
 - C.2: Printzipio metodologikoak eta gauzatu beharreko jarduerak, ikasleak taldekatzeko modua, erabiliko diren baliabideak eta jarduerak martxan jartzeko beharrezko denbora epeak eta espazioak zehaztuta.
 - C.3: Ebaluazio sistema, hauek kontuan hartuta: zer, nork, nola, noiz eta zertarako ebaluatu.
- C) **Ikasitakoari eta gauzatutako prozesuari buruzko talde-hausnarketa egitea**

Egin beharreko lanen KRONOGRAMA orientagarria			
Egin beharreko lana	Astea	Entregatzekoak	
		Banakakoal	Taldekoa
Arazoaren definizioa. Galderen planteamendua. Plangintza. B-1 entregatzeko lanaren eta T-1 entregatzeko lanaren elaborazioa	4. astea Otsailak 15-19	B-1 entregatzeko lana - Taldeari egindako ideien eta hipotesien ekarpena - Dakitena eta ezagutu nahi denaren banakako ekarpena	T-1 entregatzeko lana - Egoera hautaketaren justifikazioa - Funtzionamendu arauak - Arazoaren definizio berria - Lanen banaketa
Informazioa bilatzea eta aztertzea T-2 entregatzeko lanaren elaborazioa	5. astea Otsailak 22-26		
	6. astea Martxoak 1-5		
	7. astea Martxoak 8-12		T-2 entregatzeko lana - AOI prozesua (Eranskinak: Aktak/ Dokumentazioa)
Esku-hartze proposamena egitea B-2 entregatzeko lanaren eta T-3 entregatzeko lanaren elaborazioa	8. astea Martxoak 15-18		
	9. astea Martxoak 22-26		
	10. astea Martxoak 29-31		
	11. astea Apirilak 12-16		
	12. astea Apirilak 19-24	B-2. entregatzeko lana - Hausnarketa- banakako autoebaluazioa eta taldearen ikasle bakoitzaren koebaluazioa	T-3 entregatzeko lana - Irakaskuntza eta ikasketa proposamena (Eranskinak: Aktak/ Dokumentazioa) - Talde-ebaluazioa



DAL asteak: Klase magistral eta praktikoa arruntak mozten dira (mintegiak ez)

2.2 Entregatu beharreko lanak:

Banaka entregatzeko 1. Lana: B-1 lana

- Taldeari egindako banakako ekarpenak, galderei eta ideiei dagokielarik.
- Dakitena eta ezagutu behar denaren zerrenda, planteatutako arazoari ekiteko.

Taldeka entregatzeko 1. Lana: T-1 lana

- Egoera hautaketaren justifikazioa.
- Funtzionamendu arauak.
- Egoerari ekiteko bideari buruzko ideien zerrenda.
- Dakitena eta ezagutu behar denaren zerrenda, planteatutako arazoari ekiteko.
- Plangintza.

Taldeka entregatzeko 2. Lana: T-2 lana

- Jarraitutako prozesua, AOI-ren urrats bakoitzean iturri desberdinetatik lortutako informazioak eta taldeak adostutako ekarpenak, esplizituki azalduta.
- Eranskinak, hauek barne hartuko dituzte:
 - Taldearen bilkuraren aktak (*ikusi 1. eranskina: Taldearen bilkuretako akten eredu orientagarria*).
 - Erabilitako dokumentazio osagarria.

Taldeka entregatzeko 3. Lana: T-3 lana

- Lehen Hezkuntzako talde batentzako irakaskuntza eta ikasketa proposamena.
- Eranskinak, hauek barne hartuko dituzte:
 - Taldearen bilkuraren aktak (*ikusi 4. eranskina: Taldearen bilkuretako akten eredu orientagarria*).
 - Irakaskuntza eta ikasketa proposamena diseinatzeko erabilitako dokumentazio osagarria.
- Taldeak lana egiterakoan jarraitu dion prozesuari buruzko talde-ebaluazioa.

Banaka entregatzeko 2. Lana: B-2 lana

- Egindako lanari eta banakako ikasteari buruzko hausnarketa-autoebaluazioa.
- Ikasle bakoitzak taldekideei egindako koebaluazioa.

2.3 Idatzizko lanak egiteko arauak:

Idatzizko lanetan unibertsitateko lan guztiei dagozkien ezaugarriak errespetatuko dira, honako alderdi hauei dagokienez: jarraitu beharreko eskema, formatua eta erreferentzia bibliografikoak, zehaztasuna, argitasuna, eta abar.

Erreferentzia bibliografikoak bat etorriko dira American Psychological Association (APA) argitalpen arauekin (*ikusi 5. eranskina: APA arauak*).

Taldeka entregatzeko 3. Lanak honako gidoi honi jarraitu beharko dio:

1. Azala (eta honako datu hauek: ikasleen izen-abizenak.
2. Aurkibidea.
3. Sarrera (Jorratzen duten arazoa testuinguruan jarri labur).
4. Lanaren enborra:
 - Lehen Hezkuntzako talde batentzako irakaskuntza eta ikasketa proposamena.
 - Eranskinak, hauek barne hartuko dituzte:
 - Taldearen bilkuraren aktak (*ikusi 4. eranskina: Taldearen bilkuretako akten eredu orientagarria*).
 - Irakaskuntza eta ikasketa proposamena diseinatzeko erabilitako dokumentazio osagarria.
 - Taldeak lana egiterakoan jarraitu dion prozesuari buruzko talde-ebaluazioa.
5. Ondorioak
6. Bibliografia.

Taldeka entregatzeko 3. Lanak gutxi gorabehera 30 orrialde hartuko ditu, eranskinak kontuan hartu gabe.

Plagioa: Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egina balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta DAL ez da gaindituko.

2.4 Bibliografia:

- Berlanga, S. (2010). *La educación del consumidor en el aula, en la familia y en la sociedad*. Zaragoza: ME-Mira editores.
- Corbalán, F. (2011). *Mates de cerca*. Barcelona: Graó.
- De la Herran, A. & Paredes, J. (2008). *Didáctica General. La práctica de la enseñanza en Educación Infantil, Primaria y Secundaria*. Madrid: McGraw Hill. (Capítulo 7b)
- Del Carmen, L. (Koord.). (2004) *La planificación didáctica (claves para la innovación educativa*. Barcelona: Graó.
- Equipo Arrixaca (1996). *Matemáticas aplicadas a las CC. Sociales*. Madrid: Santillana.
- Hernández, F. & Ventura, M. (2000). *La organización del currículum por proyectos de trabajo. El conocimiento es un calidoscopio*. Barcelona: Graó.
- Hopkins, K.D.; Hopkins, B.R. & Glass G.V. (1997) *Estadística Básica para las Ciencias Sociales y del comportamiento*. México: Prentice Hall.

IHOBE. (2005). *Huella ecológica de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. 2015eko uztailaren 7an berreskuratua, hemendik: <http://www.ihobe.net/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=750e07f4-11a4-40da-840c-0590b91bc032&IdGrupo=PUB&IdAno=2005&IdTitulo=002&Cod=7294cfef-f66c-4c44-ad3e-d0845c27800b>

Leonard, A. (2007). *The Story of Stuff*. 2015eko uztailaren 7an berreskuratua, hemendik: <http://storyofstuff.org/>

Palacios, J.; Marchesi, A. & Coll, C. (2004). *Desarrollo psicológico y educación I. Psicología de la Educación*. Madrid: Alianza Psicología.

Pujol, R. M. (2008). *Educación y consumo: la formación del consumidor en la escuela*. Barcelona: Horsori, ICE, Universidad de Barcelona.

UNESCO. (2005). *Manual de educación para un consumo sostenible*. Paris: UNESCO.

3. Ebaluazioa

Hau da DALerako gai nagusia: "*Lehen Hezkuntzako irakasleek kontsumo egoeren aurrean duten zeregina*".

Ebaluazio irizpideak

- DALa ikasle guztiek bete behar dute. DALari dagokien saioen (tutoretzak, klaseak) % 80etara bertaratzea beharrezkoa da.

- DALari dagokion nota gai bakoitzaren azken notaren % 16,67koa izango da (1,6 puntu).

- Gaia gainditu ez bada, baina DALa gainditu bada, azken horri dagokion nota gorde egingo da ezohiko deialdirako (ekaina-uztaila).

- DALaren ebaluazioak bi zati ditu:

- 1) Irakasleek egiten duten ebaluazioa; ondorengoak barne hartzen ditu: ikasitakoari loturiko autoebaluazioa, DALean garatu behar diren gaitasunak kontuan hartuta, taldeko parte-hartzea (*B-2. lana*) eta taldeak bere lanari buruz egiten duen ebaluazioa (*T-3. lana*). DALaren notaren % 30 izango da. Behar bezala justifikatuta ez dagoen ebaluazioa ez da kontuan izango.
- 2) Irakasle tutoreak prozesuaren eta idatzizko lanaren inguruan egindako ebaluazioa. DALaren notaren % 70 izango da, DALean garatu behar diren gaitasunen lorpen-mailan oinarriturik.

- Prozesuaren ebaluazioak % 25eko balioa izango du. Banakako prozesua eta taldeko prozesua ebaluatuko dira, *B-1. Lana*, *B-2. Lana*, *T-1. Lana*, *T-3. Lana* eta tutoretza saioetan jasotako oharrak hartuko ditu kontuan.

- Aurkeztutako idatzizko lanaren ebaluazioak (*T-2. Lana* eta *T-3. Lana*), berriz, % 45eko balioa izango du.

Hala ere, bi zatiak gainditu behar dira DALa gainditu ahal izateko.

3. Eranskinak

1. ERANSKINA

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUKO ZEHARKAKO GAITASUNAK
Z1. LHko curriculum arloak, horien arteko diziplinarteko erlazioa, ebaluazio irizpideak eta irakaskuntza eta ikasketa prozedurei dagozkien ezagutza didaktikoak ezagutzea.
Z2. Irakaskuntza eta ikasketa prozesuak diseinatzea, planifikatzea eta ebaluatzea, banaka nahiz ikastetxeko beste irakasle eta profesionalekin batera.
Z3. Kulturantzatasun eta eleaniztasun testuinguruetan, hizkuntzak ikastea dakarten egoerei eraginkortasunez aurre egitea. Z3bis Eskola curriculumak barne hartzen dituen zientzia eta kultura arloetako testuen irakurketa eta iruzkin kritikoa sustatzea.
Z7. Hezkuntza komunitateko eta gizarte inguruneke sektore desberdinekin elkarlanean aritzea.
Z7bis Irakaskuntza zereginak barne hartzen duen alderdi hezitzailea beren gain hartzea, eta herritar aktiboak prestatzeko hezkuntza demokratikoa sustatzea.
Z10. Ikasgelako praktikei buruzko hausnarketa egitea, irakaskuntza lanean berrikuntzak eta hobekuntzak egiteko.
Z10bis Ikasketa autonomorako eta kooperatiborako ohitura eta ahalmena eskuratzea, eta ikasleen artean sustatzea.
Z11. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta ikasgeletan aplikatzea.
Z11bis Ikasketarako, gizalegezko prestakuntzarako eta kultura aberastasunerako lagungarria izan daitekeen ikus-entzunezko informazioa bereiztea eta hautatzea.
Z13. Euskara, gaztelania eta, gutxienez, atzerriko beste hizkuntza bat ezagutzea, eta hezkuntza testuinguru eleaniztun batean lan egiteko beharrezko hizkuntza ekoizpen eta ulermen maila dutela frogatzea, hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko errespetuzko jarrera hartuta.

2. ERANSKINA

IRAKASGAIA	DALerako GAITASUN ESPEZIFIKOAK	DALean LANDU BEHARREKO EDUKIAK	IRAKASKUNTZA HELBURUAK	ZEHARKAKO GAITASUNAK
HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA	Hainbat testuingurutako hezkuntza egoerak ulertzeko eta lantzeko gizarte trebetasunak agerian uztea, bere banakako ahaleginarekin eta hausnarketarako gaitasunarekin lan kooperatibo bat egiteko laguntza emanez.	<p>Pertsonen arteko harremanak eskola testuinguruan.</p> <p>Ikasketaren eta ezagutzaren sorreraren teoriak.</p>	<p>Hezkuntza egoerak aztertzerakoan enpatia izatea.</p> <p>Ikasgelako talde lanean modu aktiboan eta arrazoituan parte hartzea.</p> <p>Erlazio egokiak ezartzea hezkuntza prozesuen oinarriko printzipioen eta aztertutako egoera zehatzen artean.</p> <p>Informazioa bilatzeko eta erabiltzeko teknikak ondo aplikatzea.</p> <p>Beren iritziak ondo arrazoituta aurkezteko gai izatea. Gainerakoen iritziak entzuteko gai izatea.</p> <p>Besteen ekarpenak kontuan hartuta, norberaren iritziak berriz hausnartzeko gai izatea.</p>	<p>Z10bis</p> <p>Z11bis</p>
DIDAKTIKA OROKORRA	<p>1.- Irakaskuntza eta ikasketa prozesuak ulertzerakoan eta horietan parte hartzerakoan jarrera autonomoa, burutsua eta kritikoa izateko oinarriko galderak erabiltzea. Ikasle bakoitzak eta lan talde bakoitzak hartu behar du kontuan puntu hau.</p> <p>2.- DALean edozein urrats egitean, didaktika orokorrak eskaintzen dituen ikuspegiak eta aukerak kontuan hartzea, arazoa hobeto ulertzeko eta horri emandako erantzunak egokiagoak eta sortzaileagoak izateko.</p> <p>3.- Kontsumismoak <i>curriculum</i> ofizialean eta ezkutukoan hartzen duen lekua aztertzea, eta azterketa hori DALerako proposamen kritikoak egiteko erabiltzea.</p> <p>4.- Egoeren azterketa AOI prozesuan barneratzea.</p> <p>5.- Ikasgelako irakaskuntza eta ikasketa jarduerak ikuspegi berritzaile batetik planifikatzea eta ebaluatzea.</p>	<p>1.- Jarrera autonomoa, burutsua eta kritikoa.</p> <p>2.- Irakaskuntza eta ikasketa paradigmak, kontzeptuen eta ereduen erabilera (ikuspegiak eta aukerak).</p> <p>3.- Curriculum (ofiziala eta ezkutukoa) eta kontsumismoa.</p> <p>4.- Egoeren azterketa AOI prozesuan.</p> <p>5.- Irakaskuntza eta ikasketa arazoak konpontzeko proposamenen planifikazio berritzailea.</p> <p>6.- Irakaskuntzako parte-hartze mailak eta ikasketak</p>	<p>1.- Ikastetxeko edozein arazo ulertzerakoan edo hori konpontzeko esku hartzerakoan, oinarriko galderak egitea eta erantzutea (besteak beste: Non ari da gertatzen arazoa? Zein daude tartean? Noiztik gertatzen da? Nori interesatzen zaio hori hala izatea? Zer ondorio ditu? Beste moduren batera egin al daiteke?).</p> <p>2.- Erabakiak hartu behar direnean, zerbait arrazoitu behar denean edo DALaren prozesurako proposamenak egin behar direnean, didaktika orokorreko eduki desberdinak erabiltzea.</p> <p>3.- DALean curriculum ofizialari eta ezkutukoari erreferentzia egitea.</p> <p>4.- DALeke egoeren azterketan lehentasunak ezartzeko erabiltzen diren</p>	<p>Z10.</p> <p>Z10bis</p> <p>Z1</p> <p>Z10</p> <p>Z1</p> <p>Z10</p>

	6.- DALaren garapen osoan irakasleen parte-hartze maila desberdinak kontuan izatea.	kontsumismoari emandako erantzunak (haurrekiko elkarrekintza; taldeen kudeaketa; ikastetxe mailako koordinazioa eta talde lana, bai familiarekin bai lankideekin; ikastetxetik kanpoko beste gizarte eragile batzuekin batera egindako lana).	aldagaiak eta prozesua aplikatzea, bereziki, arazoa ulertzean eta hipotesiak hautatzean. 5.- Taldeak DALean zehaztutako arazoa konpontzeko proposamen bat egitea. Proposamen horrek asmoak, printzipio metodologikoak, jarduerak eta ebaluazio sistema barne hartuko ditu. Proposamenak koherentea izan behar du barne hartzen dituen elementuen artean eta aztertutako arazoarekiko. Proposamenean, praktika berritzaileak erabiliko dira ohiko praktiken ordean. 6.- DAL prozesua irakaskuntzako esku-hartze maila desberdinak kontuan hartuta gauzatzea.	Z2 Z10 Z2 Z10 Z13 Z7 Z10bis Z13
GIZARTE ZIENTZIAK ETA BEREN DIDAKTIKA I	Kontsumoa gizarte praktika gisa aztertzea. Hezkuntzak kontsumorako duen garrantzia aztertzea eta baloratzea. Kontsumitzaileak ekonomian nola eragin dezakeen baloratzea. Publizitateak kontsumo gizartean duen zeregina identifikatzea eta aztertzea.	Kontsumoa gizarteko gertakari gisa historian zehar. Kontsumo gizartearen ezaugarriak: ekoizleak eta kontsumitzaileak. Ekoizpenean oinarritutako ekonomiatik kontsumoan oinarritutako ekonomiarako aldaketa. Publizitatearen zeregina kontsumo gizartean. Kontsumitzailearen eskubideak eta betebeharrak.	Kontsumitzaile arduratsuen kultura bat garatzea. Merkatuko mekanismoak identifikatzea. Kontsumitzaile gisa, gure ekonomiaren azken emaitzetan dugun eraginaren erantzukizuna ulertzea. Publizitateak kontsumoan eta ekonomian duen eraginaren garrantzia baloratzea.	Z3bis Z7bis Z11bis
MATEMATIKA ETA BERE DIDAKTIKA I	1.- Matematika kontsumo egoerak ikuspegi kritikotik aztertzeko tresna gisa erabiltzen jakitea. 2.- Komunikaziorako abileziak hobetzea, arazo baten funtsezko ideiak eta balioa arrazoituz, justifikatuz eta adieraziz, oinarri matematiko bat hartuta. 3.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia	Informazioaren tratamendua: alderdi estatistikoak eta grafikoak. Zenbaki multzo desberdinen erabilera (zenbaki arrazionalak hainbat modutara adierazita, portzentajeak, eta abar).	1.a. Esploratu nahi den egoerara egokitutako tresna matematikoak hautatzea. 1.b. Hainbat tresna matematiko erabiltzea. 2.a. Esperientzia esanguratsuetan oinarritutako indukzio enpirikoak egitea.	Z1 Z3bis Z3bis Z11

	<p>berriak modu kritikoan erabiltzea, matematikaren esparruan modu didaktikoan aplikatzeko helburuarekin.</p> <p>4.- Matematikaren eta beste gai batzuen arteko erlazioaren berri ematea, baita matematikak eguneroko arazoak konpontzeko duen erabilgarritasunaren berri ere.</p>	<p>Proporzionaltasuna, antzekotasuna.</p> <p>Mintzaira sinbolikoaren erabilera.</p> <p>Zenbakizko datu zehatzak erabiltzea eta horiek benetako egoera modelizatura egokitzea.</p>	<p>2.b. Modu koherentean, zuzen eta ondo adieraztea, ahoz eta idatziz.</p> <p>2.c. Terminologia matematikoaren behar adinako ezagutza erakustea.</p> <p>3.a. Emaitzak jakinarazteko hainbat teknika eta bide erabiltzea.</p> <p>3.b. Arazo beraren aurkezpen estatistiko edo grafiko desberdinen kritika egiteko gaitasuna edukitzea.</p> <p>3.c. Aurkeztutako informazioa ez errepikatzea (gehiegizko informazioa), emaitzak argiago jakinarazteko.</p> <p>4.a. Aurkeztutako egoera eguneroko bizitzatik ateratako hainbat esperientzia oinarritzat hartuta lantzea.</p> <p>4.b. Matematikak proposatutako egoera ulertzeko eskaintzen duen laburtzeko gaitasuna baloratzea.</p>	<p>Z11bis</p> <p>Z7bis</p> <p>Z10bis</p>
<p>NATURA ZIENTZIAK LEHEN HEZKUNTZAKO IKASGELAN I</p>	<p>1.- Kontsumo ohiturek baliabideak agortzea, kutsadura eta hondakinak sortzea eta pertsonen osasuna kaltetzea dakartela jakitea eta ulertzea, genero aldagaia kontuan izanda.</p> <p>2.- Irakaskuntza eta ikasketa proposamenean gizarte osasuntsuagoa, iraunkorragoa eta berdintasunaren aldekoagoa lortzeko egin beharrekoa kontuan hartzea.</p>	<p>Arrasto ekologikoaren kontzeptua.</p> <p>Baliabideak agortzeak dakartzan ingurumen arazoak.</p> <p>Kutsaduraren eta hondakinen arloko ingurumen arazoak.</p> <p>Bizi ohitura osasungarriak.</p> <p>Ingurumen hezkuntzaren helburuak.</p> <p>Genero ikuspegia.</p>	<p>1.a.- Kontsumo ohitura batzuek baliabideak agortzea eta hondakinak eta kutsadura sortzea dakartela aitortzen eta ulertzen du.</p> <p>1.b.- Ezagutzen du kontsumo ohitura batzuk osasunean eta genero desberdintasunean duten eragina.</p> <p>2.- Irakaskuntza-ikasketa sekuentzia diseinaterakoan, kontuan izaten du helburuetako bat gizarte osasuntsuagoa, iraunkorragoa eta berdintasunaren aldekoagoa lortzea dela.</p>	<p>Z1</p> <p>Z2</p> <p>Z7bis</p> <p>Z10bis</p> <p>Z11bis</p>

3. ERANSKINA

GAIA: *"Lehen Hezkuntzako irakasleek kontsumo egoeren aurrean duten zeregina"*

- Lantzeko egoerak moduluaren aurkezpenean zehaztuko dira.

4. ERANSKINA

Taldearen bilkuretako akta: _____

	Hasiera ordua:	Lekua:	Amaiera ordua:	
Taldearen izena:		Koordinatzailea: Idazkaria:		
Bertaratutakoak:		Bertan izan ez direnak:		
Aztertutako gaiak: - - -				
Hartutako erabakiak: 1.- 2.- ...				
Hurrengo bilkurarako eginkizunak:				
	Zer?	Nork?	Noiz?	Oharrak
Hurrengo bilkuran aztertu beharreko gaiak: 1.- 2.- ...				
Hurrengo bilkuraren data:	Lekua:	Ordua:		

5. ERANSKINA

APA arauak, argitalpenen erreferentziarako (6. arg. 2009)¹

Bibliografia erreferentziak abizenaren edo entitatearen araberako **ordena alfabetikoan** daude **zerrendatuta**.

Egile beraren argitalpen bat baino gehiago egonez gero, ordena kronologikoan agertuko dira, berrienetik zaharreneira. Urte berekoei, bestalde, letra bat erantsiko zaie (a, b...).

Sareko bibliografiari dagokionez, kontsulta eguna eta helbide elektronikoa zehaztu beharko dira, honako testu hau idatzita: XXXX-XX-XX(e)(a)n berreskuratua, hemendik: <http://www.xxxxxxxx>.

Liburu, aldizkari edo web orri baten izenburua beti idatziko da **letra etzanez**. Honako hauek bereizi beharko dira:

Obra osoa: Hiru egile badira, aurreneko biak koma batekin bereiziko dira; azken biak, berriz, & sinboloarekin. Egileak hiru baino gehiago badira, ordea, lehenengoa idatzi eta ondoren *et al* jartzen da.

Egilea, A.A. (urtea). *Obraren izenburua*. Kokalekua: Argitaletxea.

Egilea, A.A. & Egilea B.B. (urtea). *Obraren izenburua*. Kokalekua: Argitaletxea.

Egilea, A.A., Egilea, B.B. & Egilea, C.C. (urtea). *Obraren izenburua*.
Kokalekua: Argitaletxea. Editorea, A.A. (ed.) (urtea). *Obraren izenburua*. Kokalekua: Argitaletxea.

Obraren zati bat: Dokumentuaren lehenengo eta azken orrialdeak adierazi behar dira:

Bildutako liburua:

Egilea, A.A., Egilea, B.B. & Egilea, C.C. (urtea). Kapituluaren izenburua. In A. Editorea, B. Editorea & C. Editorea (ed.), *Obraren izenburua* (xxx-xxx. or.). Kokalekua: Argitaletxea.

Aldizkaria:

Egilea, A.A., Egilea, B.B. & Egilea, C.C. (urtea). Artikuluaren izenburua. *Aldizkariaren izenburua*, xx, xxx-xxx. Adibideak:

Area Moreira, M. (1999). Los materiales curriculares en los procesos de
diseminación y desarrollo del curriculum. En J.M. Escudero (editorea),

¹ Xehetasun gehiago APAren estilo liburuan (http://www.cesdonbosco.com/cii/documentos/Manual_Estilo_APA.pdf). Word 2007 testu prozesadoreak eta ondorengo bertsioek asko errazten dute bibliografia lana honako goitibeherako menu honetan: *Erreferentziak/ Bibliografia eta Aipua/ Estiloa/ APA (American Psychological Association)*.

- Diseño, desarrollo e innovación del currículum* (189-208. or.). Madril: Síntesis Educación.
- Diego Cuscoy, L. (1943). *Folklore infantil*. La Laguna: Instituto de Estudios Canarios.
- Díez Gutiérrez, E.J., Terrón Bañuelos, E., & Anguita Martínez, R. (2009). Percepción de las mujeres sobre el techo de cristal en educación. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 64, 20-40.
- Ezeiza, J., Lekuona, M. & Altuna, E. (1995). *Esalditik testura. Euskaraz trebatzen*. Donostia: Gaiak.
- Feito, R. (1997). El contenido de la enseñanza. In M. Fernández Enguita (koord.), *Sociología de las instituciones de educación secundaria* (124-133. or.). Barcelona: ICE - Horsori, Bartzelonako Unibertsitatea.
- Hernández, F. & Ventura, M. (2010). *Curriculuma lan-proiektuen bidez nola antolatu. Ezagutza kaleodoskopio bat da*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hernández, F. & Ventura, M. (1998a). *La organización del currículum y proyectos de trabajo. Es un caleidoscopio*. Barcelona: ICE-Graó.
- Hernández, F. & Ventura, M. (1998b). *Los proyectos de Trabajo una forma de organizar los conocimientos escolares*. Barcelona: ICE-Graó. 2011-06-03an berreskuratua, hemendik: http://redescolar.ilce.edu.mx/redescolar/biblioteca/articulos/pdf/los_proyectos_de_trabajo.pdf.
- García, M. & Andreu, S. (2003). Las investigadoras científicas: Análisis sociológico del campo científico desde la perspectiva de género. *Revista Complutense de Educación*, 14, 337-360.
- Gobierno de Navarra (1992). *Guía General. Infantil*. Madril: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Saila eta MEC.

6. ERANSKINA: LEHEN HEZKUNTZAKO 2. MODULUAREN AUTOEBALUAZIO- GALDETEGIA

IZEN-ABIZENAK:

Moduluaren Diziplinarteko Lana eginez lortu nahi diren gaitasunak kontuan harturik, esan zer ikasi duzun bakoitzari dagokionez eta zertarako izango den baliagarria zuretzako (maila profesionalean, pertsonalean...):

GAITASUNAK	AZALPENA
G1.- Hainbat gizarte egoera identifikatzea eta aztertzea, egoera horietan kontsumoan oinarritutako jarrera etikoak agerian utziz, baina beste hainbat alderdi ere kontuan edukiz: ingurumenaren narriadura, krisi ekonomikoa, gizarteko desorekak, hedabideen eta teknologia berrien ondorioak, genero desberdintasuna, osasunaren aurkako ohiturak eta modak, pertsonen arteko harremanak, eta abar	
G2.- Ikasgelan kontsumoarekin zerikusia duten gertakizunen analisi kritikoa integratzeko estrategiak diseinatzea/erabiltzea, esperientzia eta iritzi trukea erabilita norberaren balioak argitzeko eta kontsumo eredu arduratsuagoak eta iraunkorrakoak osatzen lagunduko duten jarrera pertsonalak hartzeko tresna gisa	
G3.- Graduako zeharkako gaitasunen lorpen maila etengabe garatzea eta hobetzea: talde lana, parte-hartzea, erantzukizuna, sormena, adierazpena, ahozko eta idatzizko komunikazioa, informazio bilaketa, eta informazioaren irakurketa eta azterketa kritikoa	

Halaber, justifikatu zure buruari jartzen diozun kalifikazioa (0tik 10era) hurrengo galderari buruz:

AUTOEBALUAZIOA		0-10	JUSTIFIKAZIOA
1	Taldean partaidetza aktiboaren jarrera mantendu dut (taldearen funtzionamenduan lagundu dut, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten, dinamizatzen ...)		
2	Taldearen eztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditut		
3	Taldeak burututako bilera guztietara joan naiz esleitutako zereginak eginda		
4	Esleitutako lana egiteko behar bezain beste denbora eman dut		
5	Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu dut materiala (zehaztu)		

7.. ERANSKINA: LEHEN HEZKUNTZAKO 2. MODULUAREN KOEBALUAZIO-GALDETEGIA

IZEN-ABIZENAK:

Justifikatu zure taldearen ikaskidei jartzen diezun kalifikazioa (0tik 10era) hurrengo galderari buruz:

KOEBALUAZIOA		x		y		z		
		(0-10)	Justifikazioa	(0-10)	Justifikazioa	(0-10)	Justifikazioa	(0-10)	Justifikazioa	(0-10)	Justifikazioa
1	Taldean partaidetza aktiboaren jarrera mantendu du (taldearen funtzionamenduan lagundu du, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten, dinamizatzen ...)										
2	Taldearen eztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditu										
3	Taldeak burututako bilera guztietara joan da esleitutako zereginak eginda										
4	Esleitutako lana egiteko behar bezain beste denbora eman du										
5	Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu du materiala (zehaztu)										